



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Virtisú enpresa "inbertitzaile garrantzitsu bigaz " negoziazioetan dagoala jakinarazo dau Imanol Pradalesek Batzar Nagusien aurrean, enpresea saldu ahal izateko

Bilbon, 2013ko urtarrilaren 25ean

Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatua, Imanol Pradales, Bizkaiko Batzar Nagusien Ekonomia eta Ogasun Batzordearen aurrean agertu da gaur goizean, Bildu Taldeak eskatuta, abendu honetan bere produktzioa “guztiz” gelditu dauen Virtisú paper enpresaren gaur egungo egoera azaltzeko. Enpresako arduradunek behin baino gehiagotan esan deusie Foru Aldundiari une honetan Jofel konpainiaren filiala “inbertitzaile garrantzitsu bigaz” negoziatan dagoala Zallako lantegia saltzeko. Pradalesek esan dau “ezinbestekoa dala epe luzeko industria proiektua eta finantza gaitasuna izango dituan inbertitzaile baten sarrerea erraztea”, eta azpimarratu dau Foru Aldundia “ahalegin guztiak egiten dagoala konponbidea aurkitzeko”.

Foru Aldundiak Virtisú enpresaren industria jarduerari eta enpleguari eusteko apustu “argia” egiten dauela adierazo dau Aldundiko arduradunak. 2006an Foru Aldundiak “hainbat tresna mobidu ebazala” gogoratu dau Pradalesek, eta lan horri esker “lantegia ez zala itxi”. Akordio horretako faktore garrantzitsuen artean, Foru Aldundiak lurrak, pabilioiak eta makineria erostea sartzen zan, gero enpresari alokatzeko 2020. urtera arte. Orduan konpainiak lantegia ez ixteko konpromisoa hartu eban, industria jardueragaz jarraituz eta lanpostuei eutsiz.

Virtisú “erasorako arma” ez bihurtzeko eskatu deutse Imanol Pradalesek talde politikoei, egon daitezkan inbertitzaileen bidea errazteko. Diputatuaren berbetan une hau “konplexua” da, baina ez “atzerazina”, eta Virtisú martxan jarraitu dagian “aukerak dagozala” esan dau.

Ekonomia Sustatzeko Sailak Virtisú enpresako zuzendariakaz egin dituan kudeaketak ezagutzeko Bildu Taldeak eskatuta izan da Diputatuaren batzorderatzea. Aitor Torrek, Bildu Taldeko ordezkariak, zalantzan jarri dau 2006an enpresa horregaz sinatutako akordioa. Enpresaren jaubea arrisku kapital funts bat da. “Beharbada bazkidea ez zan egokiena izan”, adierazo dau. Onartu dau akordio hari esker enpresaren jardueria sei urte baino gehiago luzatu dala, baina esan dau egindako jarraipena ez dala ona izan. “Akordioaren ondorengo jarraipena zalantzan jarten dogu”, adierazo dau.

Bilduk gogoratu dau be Aldundia dala enpresa horren lursailen eta makinerien jaubea, 2006an 15 milioi euro ordainduta erosi ostean. Orduko konpromisoaren arabera, Jofel konpainiaren filialak Enkarterrian dagoan plantearen jardueria eta 105 lanpostuak mantendu behar ebazan. Paper-fabrikearen jardueria geldirik dago joan dan abendutik. Ekonomia Sustatzeko Foru Diputatuak baieztatu dauenez, langileek ez dabez kobratu azaroko eta abenduko soldatak, ezta Gabonetako “apartekoa” be.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Comisión de Economía y Hacienda

Imanol Pradales informa en las Juntas Generales de que la empresa Virtisú mantiene negociaciones con dos “importantes inversores” para su venta

Bilbao, a 25 de enero de 2013

El Diputado foral de Promoción Económica, Imanol Pradales, ha comparecido esta mañana en la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia, a petición del grupo Bildu, para explicar la situación actual de la empresa Virtisú, compañía papelera que desde el mes de diciembre ha paralizado “totalmente” su producción. Responsables de esta empresa han hecho llegar a la Diputación en diferentes reuniones, que, en estos momentos, la filial de la compañía Jofel mantiene negociaciones con dos “importantes inversores” para la venta de su planta de Zalla. En este sentido, Pradales ha dicho que “resulta imprescindible facilitar la entrada de un inversor con un proyecto industrial de largo plazo y con capacidad financiera”, y ha subrayado que la Diputación está haciendo “todos los esfuerzos necesarios para que se pueda buscar una solución”.

El responsable foral ha asegurado que la Diputación apuesta “de manera decidida” por el mantenimiento de la actividad industrial y el empleo en la empresa Virtisú. En su intervención, Pradales ha recordado que gracias a que la Diputación “movilizó distintas herramientas” en 2006, “la planta no se cerró”. Como factores determinantes de este acuerdo, figuraban la compra de los terrenos, pabellones y distinta maquinaria por parte de la Diputación, que pasó a arrendárselos a la empresa hasta el año 2020. El compromiso de la compañía en aquel momento fue renunciar al cierre de la planta, continuando con la actividad industrial y manteniendo los puestos de trabajo.

Imanol Pradales ha solicitado a los grupos políticos que Virtisú no se convierta en “arma arrojadiza” para no perjudicar la llegada de posibles inversores. El diputado ha definido el momento como “complejo” pero “no irreversible” y ha manifestado que “existen opciones” para el mantenimiento de Virtisú.

Su comparecencia llegaba después de que el Grupo Bildu pidiera conocer las gestiones realizadas por su departamento con los directivos de la empresa Virtisú. El apoderado de este grupo Aitor Torre, ha cuestionado el acuerdo firmado en 2006 con esta empresa que pertenece a un fondo de capital de riesgo. “Igual el socio no fue el más adecuado”, ha afirmado. Ha reconocido que el acuerdo ha servido durante más de seis años para mantener la actividad de la empresa, aunque ha lamentado el seguimiento que se ha hecho del mismo. “Ponemos en cuestión su posterior vigilancia”, ha dicho.

Bildu ha recordado también que la institución foral es la dueña de los terrenos y maquinaria de la empresa, tras la compra que se realizó en el año 2006 por valor de 15 millones de euros, con el compromiso de que la filial de la compañía Jofel mantuviera la actividad de la factoría ubicada en la comarca de las Encartaciones y los 105 puestos de trabajo. La planta papelera se encuentra sin actividad desde el pasado mes de diciembre. Según ha confirmado el propio diputado de Promoción



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Económica, los trabajadores no han cobrado las pagas de noviembre, diciembre y la “extra” de Navidad.